

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tomas Beitia Arejolaleiba

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1933-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Emalditxiki baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Ortueta baserrikoa. Hamabi anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Ganaduaz gain, ehun erletik gora ere izan izan zituzten. Maringo eskolan ikasi zuen seitik hamabost urtera arte. Juan Lopez de Lazarraga maisu arabar falangistak euskaraz egiteagatik ematen zituen belarrondokoak gogoan ditu. Ikazkin eta basolanetan jardun zuen gaztetan. Egurra eta ikatza trenean nola kargatzen zuten kontatzen du. Roneo lantegian urtebete egin zuen, eta gero Ulgor eta Copreci kooperatibetan jardun zuen erretiroa hartu arte. Garaikoa baserrira ezkondu zen, bertako Josefina Azkaraterekin eta bi alaba izan zituzten.

Zintak

ESK-063

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-03-03
- **Iraupena:** 98 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ESK-077

- **Proiektua:** Gipuzkoako zuhaizti motzak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre 'Marron', Jose Ramon - Aragon Ruano, Alvaro
- **Data:** 2011-01-31
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Gipuzkoako Foru Aldundia

Pasarteak

1. Irakasle falangista Maringo eskolan

- **Erref:** ESK-063/002

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maringo eskolan ibili zen sei urterekin hasi eta 14-15 urtera artean. Berrogei ume inguru ibiltzen ziren batera. Irakaslea Juan Lopez de Letona, falangista arabarra. `Cara al Sol´ eta `En pie flechas de España´ abestu behar izaten zuten. Euskaraz hitz egiten zuenari, belarrondokoa.

2. Irakaslearen belarrondokoak; eskolara joan nahi ez

- **Erref:** ESK-063/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Irakasleak belarrondoko gogorrak ematen zizkien, euskaraz eginez gero. Garai hartan isipulak ohikoagoak ziren eta batzuetan odoldu ere egiten zituen. Irakasten ona zen, hala ere. Bera ganadu-zain geratu behar izaten zen askotan eta gero atzeratuta joaten zenez, ez zuen nahi izaten eskolara joaterik. Hamabi anai-arreba ziren, baina bera bigarrena zen eta beti egoten zen lanen bat etxean.

3. Eskolako hiru liburuak buruz ikasten zituzten

- **Erref:** ESK-063/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:05:42. **Bukatu:** 00:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Hiru liburu zeuzkaten eskolan. Eskola gaztelaniaz izaten zen eta dotrina ere bai. Astean behin abadea joaten zitzairen eta dotrina ematen zien elizpean, jaunartzerako prestatzeko. "Alboradas" poesia-liburua. Oraindik gogoan ditu zenbait testu.

4. Umetako jolasak; Madalenetan gozoki-saltzailea

- **Erref:** ESK-063/006

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:08:32. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Garizuman txirikilan jolasten zuten. Mutikoak pilotan; neskak txapekin. Mutikoek txapetan nola jolasten zuten txakur handi eta txikiekin. Jaietan, Madalenetan, Txaparro´ gozoki-saltzailea joaten zen Arrasatetik Marinera.</p>

5. Gerra sasoian lokomotorrak ganadua harrapatu

- **Erref:** ESK-063/008
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Ganaduak zaintzen ibili behar izaten ziren, trenbidera joan ez zitezen. Itxitura beraiek egin behar izaten zuten. Gerra sasoian ez zen egon trenik eta ganaduak libre ibili ziren. Baina egun batean lokomotor bat pasa zen ganadua tunelean zegoela eta idi pareak eta bi behi harrapatu zituen. Auzoko ganadu ermandadean uztarriko ganaduak bakarrik sartzen ziren.</p>

6. Auzolanean egiten ziren lanak

- **Erref:** ESK-063/010
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Garia jotzeko, auzokoei laguntza eskatzen zitzairen. Trukean beste lanen batean laguntzen zitzairen baserri hartakoei. Urtean zehar hainbat lan egiten ziren auzolanean. Bidegintza. Aldapan zeuden gurdi -bideetan harriak egoten ziren (galtzada) eta horiek konpondu behar izaten ziren. Elizaren eta eskolaren konponketak ere auzolanean egiten ziren.

7. Eskolako kontuak: ikasleen banaketa, mahaia, berogailua...

- **Erref:** ESK-063/011
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:20:07

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Ez du gogoan irakasleari ordaindu egiten ote zitzaion. 15 urte ingururekin gau-eskolara joan zen eta orduan bai. Eskolan neskak alde batean eta mutilak bestean, zaharrenak aurrean eta gaztetxoak atzean. Bakoitzak bere ikasmahaia zuen. Bazkaltzera joan aurretik 'Cara al sol' abesten zuten. Etxean bazkaldu eta buelta. Mutikoek 14-15 urtera arte ez zuten praka luzerik janzten eta elurrarekin txarto. Etxetik bakoitzak bere egurtxoia eramaten zuen eskolako berogailuari botatzeko.

8. Idiekin basotik egurra garraiatu eta trenera I

- **Erref:** ESK-063/014
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Idiekin egurra garraiatzen zuten basotik, trenera eramateko. Aldatz beheara, lera ekartzen zuten egurra, bestela gurdian. Trenbide ondoan pilatzen zuten egurra, gero zazpi bagoi betetzeko. Egurak diru asko balio zuen orduan. Trenak zer ordutan pasatzen ziren. Bazkalostean trenik gabeko tarte bat egoten zen eta tarte horretarako aparteko tren bat eskatzen zen, egurra garraiatzeko. Auzoko jendea elkartzen zen trena kargatzeko. Laguntzera etortzen zenari hiru ogerleko eta gazta eta ogia ordaintzen zitzaizkion.

9. Idiekin basotik egurra garraiatu eta trenera II

- **Erref:** ESK-063/015
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Basotik garraiatzen zuten egurra nolakoa izaten zen. Eskuz kargatzen zuten, baina trenak bereziak izaten ziren, baxuagoak. Trenbide ertzean pilatzen zuten egurra, zazpi bagoi betetzeko adina izan arte. Gasteizera eramaten zen normalean egurra. Urtean hamar tren inguru beteko ziren.

10. Aitarekin ikazkintzan ibilia

- **Erref:** ESK-063/016
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:26:53. **Bukatu:** 00:29:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Aitarekin ikazkintzan ibilitakoa da. Txondarra egiterakoan, hasierako anpor handiak jartzeko jendea behar izaten zen eta elkarri laguntzen zioten baserritarrek. Nola jartzen ziren egurrak. Amaieran "zopizarra" edo orbela. Gauean ilunpetan orbel bila nola joan zen kontatzen du. Aita eta biak egoten ziren txondorra zaintzen. Txondor handiek dozena bat egun behar zituzten egosteko.</p>

11. Ikatza Sarabia ikazdunari saltzen zioten

- **Erref:** ESK-063/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:29:27. **Bukatu:** 00:30:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikatza Gasteizko Sarabia ikazdunari saltzen zioten. Gurdian eramaten zuten Marulandara eta han jasotzen zituen ikazdunak kamioiarekin. Soldadu joan aurretik hasi eta 25-26 urtera arte ibili zen bera ikazkintzan.

12. Egin duen txondorrik handiena 40 oinekoa

- **Erref:** ESK-063/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondor batzuk txikiak izaten ziren. Txondor handiak egiteko, erdian makila bat jartzen zen, eta kako batekin txondorra noraino iritsiko zen markatzen zen. Berak egin duen handiena 40 oinekoa izan zen. Ahal zela leku laua eta sikua behar. Urarekin erre egiten zen ikatza eta haustu.

13. Anpor-txondorrak, handienak eta txarrenak

- **Erref:** ESK-063/020
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:33:32. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Anpor-txondorrak izaten ziren handienak eta txarrenak. Anpor handiek barruan hutsuneak izaten dituzte eta egurra gutxitzean, zuloa geratzen da. Gauetz tokatuz gero, lan txarra izaten da, bizkarka egurra eraman eta txondorra kargatu behar izaten delako. "Saka-hagia". Gainean egur xehea, "zopittie" edo "zopizarra" eta gero lurrez estali. Orduan ez zegoen motozerrarik eta ez zen erraza izaten anporrak zatitzea. Batzuetan dinamita ere erabiltzen zen. Aitari entzun izan zion noizbait gizonen bat erre izan zela txondorraren zuloa betetzen zebilela.

14. Taloak eta maskeluan esnetan egositako artoa

- **Erref:** ESK-063/023
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:41:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Arbia ona zen ganaduarentzat, esnea emateko. Sobratzen zen artoa ere ematen zitzairen, baina artoa asko jaten zen orduan. Goizean taloa eta esnea. Amak egiten zituen taloak "tala-burdiñan". Ogiak egiten zirenean, artoak ere egiten zituzten. Berotasun handiagoa behar izaten zuen artoak. Gero "gelatzuan" (laratzean) maskeluan esnea irakiten jarri eta hara botatzen zen artoa, eskuarekin apurtuta.

15. Arto-oreak epeltasuna behar du jaikitzeo

- **Erref:** ESK-063/025
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:41:48. **Bukatu:** 00:43:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Gaur egun ferietan ez dela arto onik egoten dio. Nola igartzen den; artoa "jaikita" egon behar da. Amak artoarekin nola egiten zuen ore. Orea jaikitzeo epeltasuna behar da eta su-ontzia jartzen zuen ore-mahaiaren azpian.

16. Zer jaten zuten; ogiarekin larri

- **Erref:** ESK-063/027
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Bazkaltzeko, porru-patatak, patatak piper gorriekin... Txorizoa asteburuetan bakarrik. Babak urdai apur batekin. Ogiarekin ibiltzen ziren larri. Eskoriatzatik Marulandara joaten zen okina eta hara joaten ziren oinez, ogi bila. Ezti asko izaten zuten etxean eta edozein ordutan jaten zuten. Afaltzeko, berakatz-zopa edo patata egosiak. Arrautza gutxi jaten zen, saldu egin behar izaten ziren eta. Goserik ez zuten pasa, baina gehiegi ere ez zuten izaten.

17. Sagarrak eta gaztainak saltzera Gasteizera; ezti saldu ezinda

- **Erref:** ESK-063/028
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:48:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Sagar eta gaztaina denboran Gasteizera joaten ziren saltzera, trenez. Baba ere eramaten zuten. Gasteizen zaldiekin prestatutako garraiolariak egoten ziren zain, elikagaiak plazara eramateko. Bestela, Eskoriatzan eta Arrasaten ezti saltzen zuten, baina, merke egon arren, ezin salduta ibiltzen ziren.

18. Erlauntzak nola egiten zituzten laharrarekin

- **Erref:** ESK-063/029
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:48:22. **Bukatu:** 00:51:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobeitxamendua

Laburpena:

Ehun erle inguru izaten zituzten lau lekutan banatuta, etzandako enborretan. Zumitzarekin (sahatsa) eta laharrarekin prestatzen zituen etxean erlauntzak. Lahar-makilak aurkitu eta nola prestatzen zituen. Gero ganaduaren gorotzarekin eta karearekin egindako orearekin erlauntza osatu. Azpia nola prestatzen zen. Nola jartzen ziren.

19. "Tximitx"ezko eta lastozko erlauntzak

- **Erref:** ESK-063/030
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:51:48. **Bukatu:** 00:53:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Laharrarekin egiten zituzten erlauntzei "tximitxezkoak" (zumitzezkoak) esaten zieten. Lastozko erlauntzak ere egoten ziren. Erlekumeak hartzeko jartzen zen "todorra"ren antzekoak izaten ziren. Horren inguruko azalpenak.

20. Ihes egindako erleen bila mendira; udazkenean ezitia kendu

- **Erref:** ESK-063/032
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:55:19. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erle askok ihes egiten zutela dio. Erlekumeak hartzearen inguruko azalpenak. Mendira joaten ziren ihes egindako erleen bila. Udazkenean ezti guztia kentzen zieten. Etxean bazuten ezti nahikoa, baina denbora-pasa zen beraientzat.

21. Gerra sasoiko oroitzapenak

- **Erref:** ESK-063/034
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoiari hiru urte zituen, baina gogoan du larrainean miliziano kuadrilla nola egon zen aitarekin hizketan. Soldaduak non egon ziren. Gogoan du baita ere milizianoak nola joan ziren euren etxera abadearen sotanarekin eta kristoa hartuta, elizan egon ostean. Milizianoetako batek euren ezkaratzean apurtu zuen kristoa. Sukaldea nolakoa zen.

22. Gerra sasoiaren erreketek eraman eta fusilatutakoak

- **Erref:** ESK-063/035
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra sasoiaren erreketek inguruko pertsonen izenekin zerrenda bat zeukaten. Bere ama, auzoko beste batzuen antzera, Gatzagara joaten zen erosketak egitera eta zerrenda horretan zegoen. Auzoko emakume bat (bederatzi umeren ama) eraman zuten, baina ez ziren ausartu gorago joaten, gorriak zeudelako. Gatzagako abadea eta inguruko artzain batzuk ere eraman zituzten. Hernanin fusilatu zituztela jakin zuten gero. Gatzagako zortzi mutil ere hil zituzten, Batzokira joaten zirelako.

23. Aireplanoak zetozenean, aitajaunarekin zubipera

- **Erref:** ESK-063/037
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:05:42. **Bukatu:** 01:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gogoan du gerra sasoian, aireplanoak zetozenean, aitajaunarekin zubipera joaten zela, babestera. Beraiek etxean geratu ziren. Soldaduek ez zieten abere askorik kendu, oiloak bakarrik. Txerriaren bila ibili omen ziren, baina isilik egon zen eta ez zuten ikusi.

24. Milizianoen artean talde desberdinetakoak

- **Erref:** ESK-063/038
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:07:14. **Bukatu:** 01:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Milizianoen artean talde desberdinetakoak zeuden: CNTkoak, abertzaleak, UHPkoak... Bazeuden gudari batzuk ia egunero joaten zirenak euren etxera gosaltzera. Norbaitek mehatxatu edo estutzen bazituen, leihoan izara zuria jartzeko esaten zioten amandreari. Behin edo behin hala egin eta, goitik tiroka hasten zirenean, "UHP, UHP" deiadarka hasten ziren, ihes egiten zuten bitartean.

25. Gerra sasoian hiltzea "samur"

- **Erref:** ESK-063/040
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:08:59. **Bukatu:** 01:10:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian hiltzea "samur" zegoela dio. Soldadu frankistek harrapatutako bi miliziano euren etxean egon eta biharamunean hil zituztela kontatzen du. Inguruetako jendea gurdiekin munizioa eramatera behartzen zuten.

26. Eztia eta argizaria, urtu eta txanoan pasatu

- **Erref:** ESK-063/042
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:10:33. **Bukatu:** 01:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eztia nola prestatzen zuten. Lapikoan urtu eta gero txanoan nola pasatzen zuten. Lurrezko ontzietan gordetzen zuten gero. Eztia sobera izaten zuten. Argizaria saldu egiten zuten. Jendeak zorua garbitzeko erabiltzen zuen. Argizaria ere urtu eta txanoan pasatzen zen. Moldeak.

27. Madalena jaiak eta Gatzagako erromeriak

- **Erref:** ESK-063/045
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:18:27. **Bukatu:** 01:20:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Madalenetan jai handiak egiten ziren. Soinua eta dantza. Gazte asko biltzen zen. Domeketan Gatzagara joaten ziren dantzara. Dantza lotua egiten zuten gehienbat. Kalabaza asko jasotzen omen zituzten. Neska-laguntze gutxi egin zutela dio. Urte batean neskei debekatu egin zieten dantza egitea jaietan.

28. Inguruko herrietako jaietatik oinez etxera

- **Erref:** ESK-063/046
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:20:22. **Bukatu:** 01:22:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Inguruko auzo eta herrietara ere joaten ziren jaietan, baita Araba aldera ere. Arazoa oinez ibili beharra izaten zen. Bideetan lokatzaz eginda. Landatik edo Gatzagatik azkenengo trena zortziak eta erdietan egoten zen. Bestela, oinez itzuli behar. Trenbidetik elkarri helduta nola joaten ziren. Behin ardiarekin hartu zuten sustoa.

29. Trena kendu zutenean, artean errepiderik ere ez

- **Erref:** ESK-063/049
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:24:03. **Bukatu:** 01:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trena kendu zutenean, ganaduarentzat onura izan zen, baina artean ez zuten errepiderik ere. Gurdi-bideak bakarrik. Trena oso garrantzitsua zen beraientzat. Egunean zehar zenbat tren pasatzen ziren. Ganadua oinez eramaten zuten Arrasateraino, hiltegira. Gogoan du behin osabarekin joan zela eta bidean kamioi bakarra ikusi zutela. Arto-soroan zekorra harrapatzen nola ibili ziren.

30. Astoarekin Gatzagara, gatz bila

- **Erref:** ESK-063/056
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:34:17. **Bukatu:** 01:35:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gatz lantegiak

Laburpena:

Txerria hiltzen zutenean, astoarekin Gatzagara joaten ziren gatz bila. Gogoan du emakumeak nola egoten ziren gatza paketatzen.

31. Garai bateko jakiak; ardikiarekin lotutako esaera

- **Erref:** ESK-063/058
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:36:03. **Bukatu:** 01:37:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Garai bateko jakiak txerrikia eta ardikia. Zezinarik ez zuten egiten. Udazkenean buzkantzak. Gatzagako esaera: "Samilixen ardikixe jan eta akitixen". "Akitixen" berbaren esanahia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com